

Jaialdia  
GIZA ESKUBIDEEN  
ZINEMALDIA



DK

memoria  
2019



**U**daleko Giza Eskubideen Sailarekin batera antolatutako zinemaldi honen **17. edizio**ak eztabaida, pentsamendua eta konpromisoa sortu zituen berriz ere, zinegileen proposamenak, haien historiak, Zinemaldira gonbidatutako pertsona adituak eta ikus-entzuleak berak zirela medio.

Emakumeen ahalduntzea, feminismoa eta politika, sexu-autodeterminaziorako eskubidea edo indarkeria sexista izan ziren ikuspuntu batzuk emakumeen oraingo eta etorkizuneko borrokek markaturiko agenda globalean. 2019an, gainera, ohorezko saria **Annemarie Jacir** zine-zuzendari palestinarrek jaso zuen.

Hiru euskal produkzio estreinatu izanak -**Hilos de sororidad**, **Paseko txoriak** eta **Soinujolearen semea**- agerian jartzen du nola zinemaldia gure zinearen leiho gero eta irekiagoa den, eta nola gure zinea aberastuz doan gizarte-gaien bidean.

Zinemaldiak pedagogia-lana eginez jarraitu zuen 2019an ere, gida didaktikoak eskaini baitziren ikasleentzat programaturiko film guztiak ikasgeletan lantzeko. Eta ez dira ahaztu behar zenbait kolektibok zinerako irispidea izan dezaten egindako aurrerabideak ere (audio-deskribapena, azpidatzi egokituak, emanaldia Martututenen...).

Orobat, bigarren aldiz segidan, ikus-entzunezkoen sail ireki bat izan zen **errealitate birtualaren formatukoa**, eta lan haietako

askok zenbait erakunderen lankidetzaz zuzena izan zuten. Hiriko auzoetako kultur etxeetan egin ziren proiektioek ere izan zuten kolektiboen inplikazioa. Bide horretan, **Calcuta ondoanek Marmara** lantegia sustatu zuen, eta **SOS Arrazakeriak**, berriz, **React** gazte-ekinbidea.

Amaitzeko, 2019an, beste jarduera paralelo batzuen artean, erakusketa hauek izan ziren: Isabel Muñoz argazkilaria **Mujeres del Congo ; El éxodo Rohingya; UN: People on the Move;** eta **Arte eta Giza Eskubideen Haur eta Gazteen XV. Edizioa.**



Zinemaldiaren 17. edizioako kartela



Annemarie Jacir